



# **LEKEITIOKO TOKIKO AGENDA 21 IRAUNKORTASUNERAKO UDAL PROZESUA**



## **IRAUNKORTASUNERAKO TOKIKO EKINTZA PLANA** *2005eko urria*



# AURKIBIDEA

<b><u>1 AURKEZPENA</u></b> .....	<b>6</b>
<b><u>2. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA PLANERA</u></b> .....	<b>9</b>
<u>2.1. Diagnostikoaren berrikuspena</u> .....	10
<u>2.2. Helburuak</u> .....	11
<u>2.3. Diagnostikoaren ondorioak eta helburuen proposamena</u> .....	12
<b><u>3. TOKIKO EKINTZA PLANA</u></b> .....	<b>25</b>
<u>3.1. Ekintza Planaren egitura eta edukiak</u> .....	26
<u>3.1.1. Egitura</u> .....	26
<u>3.1.2. Ekintzen oinarrizko ezaugarriak</u> .....	28
<u>3.1.3. Ekintzen ezaugarri ekonomikoak eta horiek aurrera eramateko ardura</u> ..	33
<u>3.2 LERRO ESTRATEGIKOEN LABURPENA,</u> .....	34
<u>PROGRAMA ETA EKINTZAK</u> .....	34
<b><u>4. JARRAIPEN PLANA</u></b> .....	<b>52</b>
<u>4.1. Aurkezpena</u> .....	52
<u>4.2. Iraunkortasunerako adierazle sistema</u> .....	53
<u>4.2.1. Adierazleen ezaugarri eta helburuak</u> .....	53
<u>4.2.2. Aukeraketa irizpideak</u> .....	53
<u>4.2.3. Adierazle sistemak</u> .....	54
<u>4.2.4. Proposaturiko adierazle sistema</u> .....	54
<b><u>5. JARRAIPENA ETA PARTE-HARTZEA</u></b> .....	<b>58</b>
<b><u>6. TOKIKO AGENDA 21EN EKINTZEN KUANTIFIKAZIO EKONOMIKOA</u></b> .....	<b>60</b>
<b><u>1 ERANSKINA: EKINTZEN DESKRIBAPEN FITXAK</u></b> .....	<b>62</b>
<b><u>2. ERANSKINA: ADIERAZLEAK KALKULATZEKO FITXAK</u></b> .....	<b>130</b>
<b><u>3. ERANSKINA: HERRITARREN PARTE HARTZE FOROAREN ARAUDI EREDUA</u></b> .....	<b>131</b>

# LEKEITIOKO KO TOKIKO AGENDA 21

## UDALTALDE 21 LEA-ARTIBAI

### LEA-ARTIBAIKO UDALTALDE 21 ESKUALDEKO BATZORDEA

#### PARTE HARTUTAKO UDALETXEAK

Rodolfo Bakeriza Fernández. Berriatuako Alkatea  
Iñaki Sudupe Oregi. Etxebarriako Alkate  
M<sup>a</sup> Angeles Aldecogaray Alastrá. Gizaburuagako Alkatesa  
Jesús M<sup>a</sup> Lekerikabeaskoa Arrillaga. Ispasterreko Alkatea  
José M<sup>a</sup> Cazalis Eiguren. Lekeitioko Alkatea  
Javier Alberdi Ibaibarriaga. Markina-Xemeingo Alkatea  
Luis M<sup>a</sup> Ocamica Gogenola. Mendexako Alkatea  
Aitor Maruri Txurruka. Ondarroako Alkatea

#### LEA-ARTIBAIKO AMANKOMUNAZGOA

Iñigo Ansola Kareaga. Lea-Artibaiko Lehendakaria  
Luis Cazalis Eiguren. Ingurugiro Sailaren Arduraduna  
Ana Izquierdo. Ingurumen Teknikaria

**IHOBE**  
Josu Sanz  
Xabier González

#### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

**EKINTZA PLANA LANTZERA KOAN PARTE HARTU DUTEN  
LAGUNTZAILEAK**

ARDURADUN POLITIKO ETA TEKNIKOAK

GIZARTE ERAGILEEN ORDEZKARIAK

**AHOLKULARI TALDEA: ONDOAN S.COOP eta HAIZEA S.L.**

Jon Zubiria. Koordinatzailea

Maidier Etxaide. Koordinatzailea

Ainhoa Zubillaga. Teknikaria

Arantza Zubizarreta. Teknikaria

Juan Mari Apaolaza. Teknikaria

Laura Moreno. Teknikaria

Leire Egaña. Teknikaria

María Heras. Teknikaria

Junkal Fernández. Teknikaria

## 1 AURKEZPENA

1992an Rio de Janeiron ospaturiko Lurraren Gailurraren barne onarturiko iraunkortasunerako Ekintza Programa batean du jatorria Tokiko iraunkortasunaren aldeko mugimenduak. Programa hau Agenda 21 bezala dugu ezaguna.

1994an Europar Hiri eta Herri Iraunkorren lehen Batzarra ospatzen da Aalborgen (Danimarka). Bertan, Iraunkortasuneranzko Europar hiri eta herrien Gutuna landu zen , Aalborgeko Gutuna bezala ezagunagoa dena landu zen. Dokumentu honetan ingurumenaren babesean udalbatzen garrantzizko papera azpimarratzen da batez ere.

Garai hartan laurogei udalerrik sinatu zuten Aalborgeko Gutuna, iraunkortasunerako herri mailako prozesu partehartzailea martxan jartzeko konpromisoa hartuz. Globalki pentsatu eta herri mailan jardutean legoke gakoa (“Mundua gogoan, jardun auzoan”). Iraunkortasunaren alde herri mailan lan egiteko konpromiso hau europar herri eta hiri askok hartu du geroztik, gaur egun 2000 baino gehiago izanik Aalborgeko Gutuna sinatu eta Hiri eta Herri Iraunkorren europar kanpainari atxiki zaizkion hiri eta herriak, modu honetan berauen Tokiko Agenda 21 proiektuak martxan jarritz.

2004an, Aalborg+10 ospatu zen, iraunkortasunaren aldeko tokiko ekintza plana 10 urteren buruan berrikusteko aukera emanez, Agenda edo Programatik Ekintzara eta Aalborgeko Gutunetik Aalborgeko Konpromisotara igartzeko helburu berriak ezartzeko aukera (Europa guztiko tokiko gobernuek elkarrekin burutzeko baterako konpromisoen multzoa), alegia.

Aalborg+10ko Konpromisoek Europa osoan egungo hiri-iraunkortasun ahalegina indartu, Tokiko Agenda 21 suspertu, eta iraunkortasuna (tokikoa eta globala) lortzeko helburu, estrategia eta ekintza berriak definitzea dute helburu.

Tokiko Ekintza Planen gauzapena bultzatzeko koordinazio eta lankidetzeta foro izateko helburuarekin UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea osatu zen, euskal udalerrietako Tokiko Agenda 21 proiektuak dinamizatuz alegia.

Lekeitio UDALSAREA 21eko kide da 2004ko abenduaz geroztik, Udaltalde 21 Lea-Artibaiko gainerako udalerriak bezala

Gaur egun UDALSAREA hiru Lurralde Historikoetako 37 Udaletzek, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila/IHOBek, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) osatzen dute.

Prozesu hau Lekeition 2.002ko Ekainean habiatu zen, Udaltalde 21 Lea-Artibaien baitan Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Mendexa, Markina-Xemein eta Ondarroarekin batera, udalerraren garapen iraunkorreranzko Ekintza Programa bat ezartzeko gogoetarako konpromisoa hartzean.

Modu honetan Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesua jarri zen habian, herritarren parte-hartze aktiboa bilatuz aipaturiko Agendako tokiko egitasmoetan. Era berean, bizi kalitate hobea eskainiko duen herri bateranzko epe luzeko programen eraketan egin da lan, ondasun naturalak mantendu, energia eta baliabideak aurreztu, eta tokiko ahalmen ekonomikoak garatuz.

Udaltalde 21 Lea-Artibaiko udalerrak prozesua Iraunkortasunerako Diagnostikoa burutuz hasi zuten.

Diagnostiko hau udalerraren egoera ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren analisi bat egitean datza. Egungo egoera eta arazoak, puntu ahul eta sendoak eta etorkizunera begira diagnostikoa deskribatzeaz gain, helburuak, ekintza planak eta adierazleak proposatzen ditu. Azken hauek, Tokiko Agenda 21 prozesua eta udalerraren iraunkortasuna neurtzea ahalbidetuko dute.

Diagnostiko hau oinarri hartuz, hemen aurkezten den dokumentuak analisi honi erantzuna ematen dioten helburu eta garatu beharreko ekintza multzoa jasotzen ditu, udalerraren garapen iraunkorrago batetarantz aurrera egitea dutelarik helburu nagusia.

Helburuak eta hauek lortzeko proposaturiko ekintza multzoa, Lekeitioko Agenda 21 prozesuko oinarrizko elementua den Lekeitioko Iraunkortasuneranzko Tokiko Ekintza Plana deiturikoan jasotzen dira.

Dokumentu honen helburu nagusia Diagnostikoa eta jarduera helburuen arteko lotura ezartzea da, jarduera helburu hauen baitan lehentasunak erabakitzea, Ekintza Planaren edukien deskribapen zehatza egitea eta ezarpen prozesuaren jarraipena egiteko Iraunkortasun Adierazle Sistemaren aurkezpen eta deskribapena egitea.

Honen arabera, ondorengo ataletan banatzen da dokumentua:

### **DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA PLANERA (2. atala)**

Diagnostiko lortzeko buruturiko prozesuaren laburpena da. Bertatik ateratako ondorioak eta hauei loturiko esku-hartze helburuak azaltzen ditu. Helburu hauek Ekintza Planaren oinarria izango dira.

### **INGURUMEN EKINTZA PLANA (3. atala)**

Burururiko prozesua deskribatzeaz gain, Lekeitioko Tokiko Ekintza Planaren edukien deskribapen zehatza burutzen da, Ildo Estrategiko, Programa eta Ekintzen inguruko xehetasunak emanez.

### **JARRAIPEN PLANA (4. atala)**

Lekeitioko Tokiko Agenda 21 prozesuaren jarraipena egiteko diseinaturiko Iraunkortasun Adierazle Sistemaren deskribapena azaltzen du. Sistema honen bidez, Ingurumen Ekintza Planaren garapen maila eta udalerrriaren egoera balioztatu ahal izango dira urtez-urte.



## 2. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA PLANERA

Egoeraren diagnostikoa 2.003an amaitu zen, Lea-Artibaiko udalerrietako egoera orokorra deskribatzeaz gain -eskualdeko ikuspegia- udalerrri bakoitzeko diagnostiko zehatza burutuz. Laburpen gisa, 2.004ko apirilean burututako diagnostikoaren ondorio nagusien laburpen bat jasoaz dibulgaziozko formatudun argitarapen bat burutu zen.

2.004ko maiatzaz geroztik, diagnostikotik habitatuz, fase berri bati ekin zitzaion, hau berrikusi eta bertatik ateratako ondorio nagusiak identifikatuz.

Ondorio hauetatik abiatuta helburuak identifikatu eta lehenesteari ekin zitzaion. Helburuok bete ahal izateko 4-5 urteko horizontedun ekintzak jasotzen dituen Ekintza Plana diseinatu da.

Prozesu hau arlo ezberdinei dagozkien Mahai Teknikoen osaketarekin hasi zen, prozesuan parte hartzen duten udaletxeko kudeaketa alor ezberdinetako arduradun tekniko eta politikoak bilduz, Tokiko Agenda 21en baitan jasota dauden ondoko gaiak lantzearen:

Ekonomia eta gizarte arloa
Ingurune fisikoa eta sistema naturalak
Planeamendua
Mugikortasuna, garraioa eta irisgarritasuna
Baliabideen kudeaketa eta erabilera: ura eta energia
Hondakinen ekoizpena eta kudeaketa; lurzoru polituak
Kutsadura atmosferiko eta akustikoa
Jarduera ekonomikoaren ingurumen eragina
Ingurumen arriskua
Herritarren sentikortzea eta partehartzea
Udal ingurumen kudeaketa

Tokiko Agenda 21en landutako gaiak ekiteko bi Lan Mahai osatu ziren; osaketa ondokoa izan zen:

<b>GIZARTE ZERBITZUAK ETA JARDUERA EKONOMIKOAK</b>
Gizarte Zerbitzuetako teknikaria
Behargintzako teknikaria
Euskara teknikaria
Kultura teknikaria
Kiroletako teknikaria
Turismo Bulegoko teknikaria

Gazte Bulegoko teknikaria
Udal aparejadorea
Lea-Artibaiko Amankomunazgoko Ingurumen teknikaria

<b>HIRIGINTZA</b>
Udal arkitektoa
Udal aparejadorea
Ur eta saneamendu arloko udal aholkularia
Lea-Artibaiko Amankomunazgoko Ingurumen teknikaria

Mahai teknikoen lana amaitutakoan, herritarrek diagnostikotik ateratako ondorio eta proposaturiko helburuen inguruan euren ekarpenak egiteko aukera izan zuten, horretarako 2.005eko otsailean Herritarren Partehartze Foroa burutu zelarik.

Jarraian, burututako lan eta aterako ondorioen inguruko xehetasunak jasotzen dira.

## 2.1. Diagnostikoaren berrikuspena

Buruturiko diagnostikotik abiatuta Mahai Tekniko eta Foroaren lana ateratako ondorioak balidatu eta tokiko iraunkortasunaren ikuspuntutik esanguratsuenak identifikatzean datza, esku-hartze helburuak proposatzeko oinarri izan daitezten.

## 2.2. Helburuak

Ingurumenari buruzko Ekintza Planaren helburuak definitzeko Iraunkortasuna Lortzeko Bidean Europako Hirien Gutunean (Aalborg-eko Gutuna) agertzen diren printzipio gidariak hartzen dira oinarritzat; printzipio hauek Aalborg+10ean berrikusi ziren Iraunkortasunerako bidean ondoko konpromisoak definituz:

1. *Gobernatzeko moduak*: demokrazia partehartzailearen bidez erabakiak hartzeko prozedurak bultzatu.
2. *Iraunkortasunaren aldeko udal kudeaketa*: diseinutik hasi eta ezartze eta ebaluazio fasera arte udal kudeaketa programa eraginkorrek prestatu.
3. *Natur ondasun komunak*: guztiok natur ondasun komunak erabiltzeko aukera izan dezagun hauek babestu, mantendu eta bermatu.
4. *Kontsumo eta bizimodu arduratsuak*: baliabideak tentuz eta modu eraginkorrean erabiltzea erraztu eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorra bultzatu
5. *Hirigintza diseinatu eta planifikatzea*: hirigintza diseinatzen eta planifikatzen eginkizun estrategikoa izan eta ingurumen, gizarte, ekonomia, osasun eta kultur gaiak guztion onerako bideratu.
6. *Mugikortasuna hobetu eta zirkulazioa murriztea*: garraioa, osasuna eta ingurumena bata bestearen mende daudela onartu eta mugikortasun iraunkorreko ereduak irmotasunez sustatzeko konpromisoa hartu.
7. *Osasunaren aldeko tokiko ekintza*: herritarren osasuna eta ongizatea zaindu eta areagotu.
8. *Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra*: tokiko ekonomia bizia izan dadin eta enplegua sor dezan lortu ingurumenari kalterik egin gabe.
9. *Berdintasuna eta justizia soziala*: komunitate integratzaile eta solidarioak bermatu.
10. *Tokian tokikotik mundu globalera*: bakea, justizia, berdintasuna, garapen iraunkorra eta klima babesteko erantzukizun globala gure gain hartu.

Iraunkortasuneko printzipio orokor hauek Ingurumen Diagnostikoan jasotako gaiekin kontutan izateak udalerrirako helburu espezifikoak definitzea garrantzitsua da; helburuok, hierarkizatu ondoren, Ekintza Plana osatzeko beharrezko ekintzak egituratzeko oinarri izango dira.

### **2.3. Diagnostikoaren ondorioak eta helburuen proposamena**

Ondorengo orrialdeetan, taula moduan, Diagnostikotik ateratako ondorioak eta proposaturiko helburuak aurkezten dira gaiez-gai.

<b>ARLO SOZIOEKONOMIKOA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<p><b>ETXEBIZITZA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 1994eko AASSetako aurreikuspenak gainditzen ari dira, datozen urteetan 1.000 bat etxebizitza berri egiteko asmoa dagoelarik, neurri batean bigarren etxebizitza eskaria asetzeko. Gutxi gorabehera 146 babestutako etxebizitza eraikitzea espero da.</li> <li>• 1996an etxebizitzaren %48a hutsik zegoen.</li> <li>• Aldamiz Etxeberria auzo periferikoa egoera txarrean dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxebizitza babestuak eta alokairukoak sustatu.</li> <li>• Auzo eta kaleen urbanizazioa eta berriztapena sustatu.</li> </ul>
<p><b>HEZKUNTZA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen eta bigarren hezkuntzaz gain Batxiler Teknologikoa eta Heziketa Zikloak ikasteko aukera dago.</li> <li>• Haurtzaindegi zerbitzuak garrantzia handia du lan munduan barneratzen ari diren emakumeentzat.</li> <li>• Eskolako Agenda 21 martxan da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizitza guztian zeharreko hezkuntza (ez formala) bultzatu: sentikortze kanpainak...).</li> </ul>
<p><b>OSASUNA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lekeitioko Osasun zentroa da eskualde mailan 24 orduz irekita egoten den bakarra.</li> <li>• Anbulantzia zerbitzurik bada. Medikuduna lortu nahi da.</li> <li>• 3 farmazia daude (horietako batek zaintzako zerbitzua eskaintzen du)</li> <li>• Kontsulta espezializatuak Gernika eta Durango eskaintzen dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun zerbitzua mantendu eta ahal bada hobetu.</li> </ul>

<b>ARLO SOZIOEKONOMIKOA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<p><b>KULTURA, KIROLA ETA AISIA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskaintza dibertsifikatua: Kultur etxea, liburutegia, kiroldegia, futbol zelaia...</li> <li>• Partaidetza hazten ari da antolatutako ekintzetan.</li> <li>• Kirol eta Kultur Patronatuek erakunde autonomo moduan egiten dute lan.</li> <li>• Laster musika bandako zuzendaria jubilatu egingo da.</li> <li>• Kirol instalazioen sakabanaketak langileak bikoiztea eskatzen du eta erabiltzaileentzat ezerosotasunak eragiten ditu.</li> <li>• Deskoordinazioa handia dago kirol arloan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kultur, kirol eta aisialdi ekintzak batu eta dinamizatu.</li> <li>• Kultur eskaintza antolatu eta ezagutzera eman.</li> <li>• Kultur jarduerak burutzeko instalakuntzen egoera hobetu.</li> <li>• Musika arloa berrantolatu.</li> <li>• Kirol eskaintza antolatu.</li> <li>• Kirol instalazioen antolaketa aztertu.</li> </ul>
<p><b>EKIPAMENDUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• AASSak onartu zirenetik gabeziak ageri zituzten zenbait elementutan hobekuntzak egin dira: kirol-guneak, pasealekuak, anbulatorioa...</li> <li>• Berdeguneak zaindu egin beharko lirateke.</li> <li>• Espaloiak zabaldu beharra dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiri ekipamenduak hobetu (berdeguneak, espaloiak...).</li> </ul>
<p><b>GIZARTE ZERBITZUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekipamenduak: Oinarrizko Gizarte Unitatea, Caritas.</li> <li>• Eskaintzen diren zerbitzuen berri eman behar litzaioke jendeari.</li> <li>• Orokorrean eskualde mailako gizarte zerbitzuen beharren azterketa bat egin eta plangintza bat diseinatzea falta da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskualde mailako beharrak aztertu eta zerbitzuak antolatu.</li> <li>• Gizarte zerbitzuen eskaintzaren berri eman.</li> </ul>

<b>ARLO SOZIOEKONOMIKOA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<p><b><u>Etorkinak</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Etorkinentzako Arreta Zerbitzua eskaintzen du Mankomunitateak.</li> <li>• Ez dago integrazio arazorik baina bertakoek bezala etxebizitza alokatzeko orduan arazoak izaten dituzte eta enplegu kolokatasuna jasaten dute.</li> </ul> <p><b><u>Emakumea</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumearen Aholkularitza Juridikorako zerbitzua eskaintzen da eskualde mailan.</li> <li>• Emakumeen Berdintasun Plan bat dago.</li> <li>• 40-60 urteko emakumeek lan munduan sartzeko arazoak dituzte, profil profesionalik ez dutelako.</li> </ul> <p><b><u>Gaztedia</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 12-16 urte bitarteko gazteengana zuzendutako ekipamendu eta jarduerak falta dira.</li> <li>• Orokorrean Udaletik eginiko proposamenei uko egiten die Lekeitioko gazteek.</li> <li>• Hutsunea nabari da droga prebentzio mailan.</li> </ul> <p><b><u>Hirugarren adinekoak</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekipamenduak: Uribarren Abaroa Zahar Egoitza eta Zaharren Etxea.</li> <li>• Eguneko zentrorik ez dago, ez eta tutoretzapeko pisurik.</li> <li>• Udaletxeak ematen dituen dirulaguntzak jasotzeko eta etxez-etxe laguntza zerbitzurako eskariak gero eta gehiago dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etorkinen integrazioa eta elkarbizitza sustatu.</li> <li>• Emakumeen Berdintasun Plana aurrera eraman.</li> <li>• Gazte Plana aurrera bultzatu.</li> <li>• Droga prebentzioa sustatu.</li> <li>• Gazteei zuzendutako programak osatu.</li> <li>• Hirugarren adinekoengana zuzendutako zerbitzua hobetu.</li> </ul>

<b>ARLO SOZIOEKONOMIKOA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<p><b>EUSKARA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2001ean biztanleen %86a euskalduna zen.</li> <li>• Udaleko euskararen ezagutzari buruzko plangintza amaituta dago.</li> <li>• Merkataritza-ostalaritzan euskararen erabilerari buruzko kanpainak egiten dira urtero.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen normalizazioa bultzatu.</li> </ul>
<p><b>JARDUERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hirugarren sektorea da Lekeition pisu handiena duena.</li> </ul> <p><b><u>Turismoa</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Turismoarekiko dependentzia nabarmena da Lekeition baina oraindik ere eguneko bisitetan oinarritzen da gehien bat.</li> <li>• Eskaintza turistikoa (faroa, talaia, gune historikoa, aterpetxeak, hotelak...) eta azpiegiturak (trafiko egoera, ostalaritza...) hobetu behar dira.</li> <li>• Baliabide turistikoa saltzeko Lea-Artibai markak Lekeition soilik funtzionatzen du.</li> <li>• Web orriaren erabilera aztertzen ari dira.</li> </ul> <p><b><u>Merkataritza</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkatarik elkarerik baden arren elkarlaneko barne arazoak izaten dira.</li> <li>• Merkatal zentro handirik inguruan ez izatea bertako komertzioentzako mesedegarria den arren, orokorrean Lekeitioko komertzio asko zaharkituta geratzen ari dira, ixten ari direlarik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sektore ekonomiko tradizionalak sustatu.</li> <li>• Turismo Plan Orokor bat egin.</li> <li>• Turismo zerbitzua hobetu.</li> <li>• Azpiegitura turistikoa berriak sortu beharren arabera.</li> <li>• Bertako komertzio txikia sustatu.</li> <li>• Merkatal eskaintza hobetu.</li> </ul>



<b>ARLO SOZIOEKONOMIKOA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<p><b><u>Industria</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 3,5 Ha.ko gune bat lurzoru industrial bezala aurreikusita zegoen –AASS-baina badirudi egoitzarako lurzoru izendatuko dela eremu hau..</li> </ul> <p><b><u>Arrantza</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sektore hau beherakada handia jasaten ari da.</li> <li>• Etorkin askok egiten du lan arrantza sektorean, batere formaziorik gabe.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Industria/Zerbitzu lurzoru berria izendatu.</li> <li>• Arrantza sektorea mantendu eta lan baldintzak hobetu.</li> </ul>
<p><b>LANA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalerriak ez ditu bertokoen lan beharrak asetzen: 1996an lanean ari zirenen ia %50ak beste herri batean egiten zuen lan.</li> <li>• Eskualde mailan langabezia tasa %4,2koa da (2002) emakumeei eragiten dielarik gehien bat.</li> <li>• Berriatua, Etxebarria eta Gizaburuagan ezarritako industria da eskualde mailako motore ekonomiko nagusienetakoa.</li> <li>• Lanaren kalitatea hobetu beharreko arlo nabarmena da: aldi baterako lan kontratuak gorakada handia jasaten ari dira eta kualifikatutako lanpostuak falta dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kalitatezko lanpostuak sortu eskualde mailan.</li> <li>• Eskualde mailan enpleguaren sustapenean dirauten eragileen arteko koordinazioa hobetu.</li> </ul>
<p><b>EGITASMOAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lekeitioko Plan Estrategikoa berritzeko dago.</li> <li>• Eskualdeko Plan Estrategikoa (2005erako ekintza plana).</li> <li>• PERCO</li> <li>• IZARTU Plana (Plan de Revitalización de Áreas Urbanas Desfavorecidas).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanaren sustapenerako egitasmo guztien arteko koordinazioa lortu (eta Agenda 21en baitan integratu).</li> </ul>

<b>PARTAIDETZA ETA KOMUNIKAZIOA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<b>PARTAIDETZA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Partehartzea orokorrean nahiko baxua izaten da (foroetan, elkarteetan, Udalerrian antolatutako jardueretan...).</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Herritarrek udalerriko ekimenetan duten partehartzea areagotu.</li></ul>
<b>KOMUNIKAZIOA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Egun erabiltzen diren bideak: Bandoak, buzoneoa eta portaletan jarritako abisuak, HITZA., web orria, Dzanga udal aldizkaria, herritarrei zuzendutako bulegoa.</li><li>• Beharrezkotzat jotzen da Udala eta biztanleriaren arteko komunikazioa eta informazio elkartruckerako bideak hobetu eta hedatzea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Udalak herritarrekiko duen komunikazioa hobetu.</li></ul>

<b>INGURUNE NATURALA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<b>ELEMENTU ESANGURATSUAK</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Lea ibaia Natura 2000 sarearen baitan dago</li><li>• Lea itsasadarra: Garrantzizko Espazio Naturalen Katalogo Irekiaren baitan dago.</li><li>• Basoa ageri den guneetan hostozabalak koniferoak baino ugariagoak dira.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Interes berezia duten elementuak ezagutu eta babestu.</li></ul>
<b>INGURUMEN ARRISKUA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Lekeitioko Udal Larrialdi Plana 1997-1998 urtekoa da.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Udalerriko Larrialdi Plana berrikusi.</li></ul>

<b>MUGIKORTASUNA, GARRAIOA ETA IRISGARRITASUNA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<b>ERREPIDE SAREA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Orokorrean Lea Artibaiko errepide sarea eskastzat jo daiteke (bide tarte estuak, malda handiak...).</li><li>• Lekeitio-Ispaster saihesbidea egiteko proiektua dago, zirkulazioa hobetzeraren.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Herri barneko zirkulazioa erraztu eta ibilgailuen habiadura moteldu.</li></ul>
<b>GARRAIO PUBLIKOA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zerbitzuak: Bizkaibus Bilborantz eta Pesa Donostiarantz.</li><li>• Ondarroarekin lotura zuzenik ez dago, bi Udalerrien arteko komunikazioa oztopatuz.</li><li>• Garraio publikoaren erabilera altua da inguruko herriei alderatuz.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Garraio publikoa hobetu eta bere erabilera sustatu.</li></ul>
<b>GARRAIO PRIBATUA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Autoaren erabilera altua da, batez ere lana dela eta.</li><li>• "Aparkalekua helmugan bertan" ideia dela eta autoa da herrigunean espazio publikoaren kalitatea okertzen duen faktore nagusienetakoa.</li><li>• Aparkaleku arazoak daude, turismoak eragin handia izanik arazootan.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Aparkaleku plaza berriak sortu.</li></ul>
<b>OINEZKO ETA BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUNA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Udalerriko espazio publikoaren zati handi bat autoentzat egokituta egon arren Gune Historikoa oinezkoentzat prestatu eta oinezkoentzako pasealekuak sortu dira (AASS, 1996).</li><li>• Bizikleten ibilbideek ez dute orain arte udalerri zein eskualde mailan bultzada handirik izan.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Oinezkoen mugikortasuna bultzatu eta erraztu.</li><li>• Bizikleta udalerri mailako garraio sistema moduan indartu.</li></ul>

<b>MUGIKORTASUNA, GARRAIOA ETA IRISGARRITASUNA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<b>IRISGARRITASUNA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Udalak Udalerriko irisgarritasunari buruzko azterketa espezifiko bat du.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Udalerriaren irisgarritasuna bermatu.</li></ul>



<b>INGURUMEN BEKTOREAK</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<p><b>ENERGIA</b></p> <p><b><u>Hornidura eta kontsumoa</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lekeitio da propano gasaren hornidura sarea hedatu duen eskualdeko Udalerri bakarra.</li> <li>• Udalerriko batz besteko argindar kontsumoa egonkor mantendu da azken urteetan (1998-2000):</li> <li>• Lekeitio ez da egin energiaren kontsumo eraginkor baten aldeko informazio, hezkuntza eta sentsibilizazio kanpainarik.</li> </ul> <p><b><u>Energia berriztagarriak</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Orokorrean energia berriztagarrien garapen maila baxua da Lea Artibain.</li> <li>• Lekeitiori dagokionean Eguzki Plakak (Termikoa) daude Udal igerilekuetan eta Trinkete etxean eta Iturriotz Institutuak eguzkitiko energia sustatzeko ekimen eta hezkuntza proiektua jarri ditu martxan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eraginkortasun energetikoa handitu udal eraikinetan, kale argiztapenean, etxebizitzetan...</li> <li>• Gas propanoaren erabilera areagotu.</li> <li>• Udal eraikinetan eta etxebizitza babestuetan energia berriztagarriak sustatu.</li> </ul>
<p><b>ATMOSFERA ETA AKUSTIKA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Airearen kalitatea neurtzeko estaziorik ez dago eskualdean.</li> <li>• Ez dago zarataren inguruko Ordenantzarik.</li> <li>• Zarata arazorik nabarmenenak: Motorrak eta ostalaritza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aire kalitateari buruzko informazioa lortu.</li> <li>• Zaratari eta beronen iturriei buruzko informazioa hobetu.</li> </ul>

<b>INGURUMEN ERAGINA DUTEN JARDUERAK</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<b>INGURUMEN ERAGINA DUTEN JARDUERAK</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• ISO 14001 ziurtagiridun 4 industria-establezimendu zeuden 2001ean eskualdean (bat bera ere ez Lekeition).</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Jardueren ingurumen eragina kontrolatu.</li></ul>

<b>UDAL INGURUMEN KUDEAKETA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNERAKO DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>HELBURUEN PROPOSAMENA</b>
<b>UDAL INGURUMEN KUDEAKETA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Lekeitioko Udal Kirol Erakundearen Ekoscana: Ekintza Plana diseinatua dago eta zenbait ekintza martxan jarri dira jada.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Iraunkortasun irizpideak barneratzen dituen udal kudeaketa sustatu.</li></ul>



### 3. TOKIKO EKINTZA PLANA

Lekeitioko Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plana aurreko fasean ezarritako helburuetatik abiatuta garatzen da. Helburu bakoitzari dagokion lehentasuna eman ondoren, Planaren helburu estrategikoak zehaztu dira, Ildo Estrategiko bezala hain zuzen ere; horiek izan dira Ekintza Planaren ardatz egituratzaileak.

Lan fase honen helburua Tokiko Ekintza Planaren diseinua da, bertoko ekintzak definitu eta ezaugarrituz, hau da, ekintza bakoitzaren exekuzio programa zehaztuz.

Tokiko Ekintza Plana burutzeko, ondoko Lan Mahaiek jardun dute lanean:

<b>GIZARTE ZERBITZUAK ETA JARDUERA EKONOMIKOAK</b>
Alkatea
Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia
Lear Garapen-Behargintzako teknikaria
Gizarte Zerbitzuetako teknikaria
Kultura teknikaria
Ikastetxeen ordezkari
Jubilatuen ordezkari
Lea-Artibaiko Amankomunazgoko ingurumen teknikaria

<b>URBANISMO</b>
Hirigintzako zinegotziak
Udal arkitektoa
Udal aparejadorea
Lea-Artibaiko Amankomunazgoko ingurumen teknikaria

Mahaien funtzioa ezarritako helburuak oinarritzat hartuz, 5 urteko gehieneko epe batean aurrera eramateko asmoa dagoen Ekintzak zehaztea izan da, Planaren helburuak 2010 urteari begira zehaztuz eta lehentasunak ezarriz. Ekintzen inguruan landutako informazioa, (deskribapen fitxak, epeak, aurrekontuak, finantziarioa, arduradunak...) MUGI sisteman sartuko da epe laburrean. Sistema hau, Tokiko Ekintza Planaren kudeaketa errazteko IHOBek Udalsareako kide diren udalerrien eskura jarritako udal kudeaketarako informatika tresna da. Aipatzekoa da tresna honek iraunkortasunerako adierazle multzo bat barneratzen duela, zeina Lekeitioko adierazle sisteman aldi baterako sartu ahal izateko aztertu egin beharko den.

Mahaien metodologia ondokoa izan zen: aipaturiko bilera bakoitzean, partaideek, Mahai bakoitzari

zegokion gai multzoan, proposaturiko helburuak lortzera zuzendutako ekintzak zehaztu zituzten eta zenbait kasutan baita ezaugarritu ere, programa eta ekintza zehatzak definituz.


Mahai Teknikoen lana amaitutakoan, 2.005eko ekainean, Herritarren Partehartze Foroa burutu zen, non herritarren ekarpenak jaso ziren, Ekintza berrien proposamena edo lehentasunak ezartzeari dagokionean.

## 3.1. Ekintza Planaren egitura eta edukiak

### 3.1.1. Egitura

Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Planaren egitura **Ildo Estrategikoen** definizioan oinarritzen da, hauek baitira Planari erantzuna eman nahi dioten helburu estrategikoak.

Ildo estrategiko bakoitzak helburu espezifiko batzuk ditu, **Jarduketa Programa** moduan adierazita hain zuzen ere. Aipatu programak **Ekintza** multzo batean gauzatzen dira, eta ekintza horiek definitzerakoan xede dituzten helburu orokorrak eta bereziak (lerroak eta programak), deskribapena, parte hartzen duten entitateak, koste ekonomikoa eta pertsonala, finantziario iturriak, eta esleitutako lehentasun maila hartzen dira kontuan.



3.1. irudia: Ekintza Planaren egitura

### 3.1.2. Ekintzen oinarrizko ezaugarriak

Ekintzak dira Ekintza Plana egituratu eta definitzen duten oinarrizko unitateak, eta horietako bakoitzak ezaugarri batzuk ditu ondorengo orrietan azaltzen den legez.

Ekintza Planerako erabili den Ekintzaren kontzeptua zentzu zabalean ulertu behar da, mota oso desberdineko ekintzak barneratzen baitira; ekintzok ondoren adierazten den moduan sailka daitezke:

- **Kudeaketa**

Iraunkortasunaren bidean aurrera egitea ahalbidetzen duten udal kudeaketako hainbat ekintza.

Adibideak:

- *Motorrek eragindako zarata kontrolatu eta zaindu.*

- **Hezkuntza eta Partehartzea**

Iraunkortasunerako hezkuntzarekin eta herritarren nahiz toki komunitateko aktoreen parte hartzearekin zerikusia duten ekintzak.

Adibideak:

- *Hondakinen ekoizpena eta kudeaketa egokiaren inguruan herritarrak sentikortzeko kanpainak burutu.*

- **Araudia**

Arau berriak sartu edo daudenak aldatzea ingurumenaren gaineko eragina mugatzeko, ingurumenaren kudeaketa hobetzeko edo iraunkortasunaren bidean dauden prozesu eta jarrerak bultzatzeko, ingurumen kostuak edo onurak barnera daitezen.

Adibideak:

- *Foru Aldundiarekin elkarlanean "Ehizarako babes guneak" izendatu.*

- **Zerga arloa**

Iraunkortasunaren aldekoak diren prozesu eta jarrerak hobesteko eta ingurumen kostu eta onurak barneratzeko zerga arloan aldaketak egitea.

Adibideak:

- *Hirigune historikoan komertzioak berritu eta berriak sortzea sustatu exentzio fiskalaren bidez.*

- **Ekipamendu eta azpiegiturak**

Ekipamenduen erosketa edo azpiegituren exekuzioarekin loturiko ekintzak.

Adibideak:

- *Udalerriko zenbait edukiontzi lurperatu.*
- *Bidegorri Sarea hedatu.*

- **Iraunkortasun irizpideak barneratzea**

Ingurumen irizpideekin bat datozen ekintzak aurrera eramatea udal kudeaketarekin edo tokiko administrazioaren funtzionamenduarekin zerikusia duten gaietan.

Adibideak:

- *Udaletxeko erosketa eta kontratazioetan iraunkortasun irizpideak barneratu.*
- *Udal erakundeetan ingurumen kudeaketako irizpideak barneratu: Udal instalazio batean Ekoscana burutu*

- **Azterketak**

Iraunkortasunaren bidean garrantzitsuak diren arlo, prozesu edo arazoak hobeto ezagutu eta balioesteko beharrezko azterketak egitea, edo Ekintza Planak guztiz zehaztu ezin ditzakeen ekintzak definitzea.

Adibideak:

- *Herritarrek zein kirol burutu nahi duten aztertu, eskaerok aseko dituzten jarduketak antolatuz.*
- *Udalerriko interes naturaleko eremuan identifikatu eta zerrendatu.*



## EKINTZEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO ERABILTZEN DIREN KONTZEPTUEN DESKRIBAPENA

KONTZEPTUA	DESKRIBAPENA
<b>Kodea</b>	Ildoari, programari eta ekintzari dagozkion hiru digituz osaturiko zenbaki kodea.
<b>Ekintza</b>	Ekintzaren zenbaki eta izenburua.
<b>Lerroa</b>	Ekintzari dagokion lerro estrategikoaren zenbaki eta izenburua. Ekintzaren helburu orokorra jasotzen du.
<b>Programa</b>	Ekintzari dagokion jarduketa programaren zenbaki eta izenburua. Ekintzaren helburu espezifikoak jasotzen du.
<b>Deskribapena</b>	Ekintzaren oinarrizko definizio eta karakterizazioa.
<b>Exekuzio/ezarpen epea</b>	Ekintza burutu (ekintza puntuala bada) edo ezartzeko (denboran modu jarraian edo periodikoan luzatuko den ekintza baten kasuan) gehienezko epea.
<b><i>Motza (0-1 urte)</i></b>	Exekuzio/ezarpen epea motza dela adierazten du (0-1 urte artean).
<b><i>Ertaina (1-3 urte)</i></b>	Exekuzio/ezarpen epea ertaina dela adierazten du (1-3 urte artean).
<b><i>Luzea (3-5 urte)</i></b>	Exekuzio/ezarpen epea luzea dela adierazten du (3-5 urte artean).
<b>Maiztasuna</b>	Ekintza burutzeko proposatzen den maiztasuna. Ekintza etengabe egin behar denean " <b>jarraitua</b> " hitzarekin adieraziko da.
<b>Lehentasuna</b>	Hainbat arrazoirengatik proposatutako ekintza lehentasunezkoa ote den adierazten du, funtsezko alderdi batean eragiten duelako, lehenbailehen ezartzea komeni delako edo ekintza hori burutzeak hainbat ondorio onuragarri izango dituelako.

Oharra: Ekintzen ezaugarriei dagozkien datuak osatzeko IHOBek helburu horrekin sortutako "MUGI" euskarri informatikoa erabiliko da.

KONTZEPTUA	DESKRIBAPENA
<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	Ekintza burutu edo ezartzeko aurreikusitako kostua. Pertsonalaren kostuak sartu ala ez erabakiko da, edo beharrezkoa izanez gero, hori erabakitzeke berariazko azterketa bat egingo da.
<b>Erakundeak</b>	Ekintzaren exekuzio eta ezarpenean parte hartuko duten erakundeak.
<b>Finantziarioa</b>	Ekintzaren finantzaketa ekonomikoan parte hartu behar duten edo parte har dezaketen erakundeak.
<b>Adierazleak</b>	Zuzenean edo zeharka ekintzarekin zerikusia duen/duten Iraunkortasunaren Adierazle Sistemako adierazlea edo adierazleak.
<b>Exekuzioaren kontrola</b>	Ekintzaren garatze edo ezartze maila adierazten du: Hasi gabe, hasita, aurreratua, amaitzen, amaitua.
<b><i>HASI GABE</i></b>	Ekintzarekin lotutako jarduerarik ez da hasi.
<b><i>HASITA</i></b>	Ekintzaren hasierako faseak burutu dira (proiektu fasea, parte hartu behar dutenekin elkarrizketak hastea...).
<b><i>AURRERATUA</i></b>	Ekintzarekin lotutako jarduerak burutzen ari dira eta dagoeneko hasierako faseak gainditu dira.
<b><i>AMAITZEN</i></b>	Kategoria hau bi kasu hauetan erabiliko da: inbertsioak ekintzaren exekuzio kontrolaren urtean amaitzen direnean, edo exekuzio kontrola baino lehen ezartzen hasi den exekuzio periodiko edo jarraituko ekintza bat denean.
<b><i>AMAITUA</i></b>	Kategoria hau erabiliko da inbertsioak exekuzio kontrolari dagokiona baino urte bete lehenago amaitu direnean edo ekintza horren bidez konpondu beharreko arazoa desagertu egin denean.



### 3.1.3. Ekintzen ezaugarri ekonomikoak eta horiek aurrera eramateko ardura

Proposatutako ekintzak eta dagozkien gaiak hain desberdinak izanik, kostuen esleipen motak ere desberdinak dira; eta horri dagokionez, honako kasu berezi hauek hartuko dira kontutan:

- **Udaleko giza baliabideen kostuak bakarrik dituzten ekintzak**

Udalak dauzkan giza baliabideen beharra horren txikia eta puntuala izateagatik denbora kostu handirik ez dutenak, eta beraz, egungo kontratazio ordutegiaren erregimenean aldaketarik eragiten ez dutenak; beste aukera bat izango litzateke beste ekintza baterako kontratatu diren giza baliabideetara jotzea, eta kasu horretan, kontabilitatea bikoitza izango litzateke.

*Adibidea: Hornidura uren kalitatearen analitika eta kontrola burutzen jarraitu.*

- **Kosturik gabeko ekintzak**

Beren ezaugarriengatik inolako kostu ekonomiko zuzenik ez duten ekintzak, edo oso kostu txikia dutenak.

*Adibidea: Iraunkortasun irizpideak barneratu udal kontratazio eta erosketetan.*

- **Zehaztu gabekoa**

Euren dimentsioa dela eta proiektu tekniko edo berariazko azterketa ekonomiko bat behar duten ekintzak.

*Adibidea: Bidegorri Sarea garatu.*

Ekintza bakoitzari lotuta ekintza horren finantzaketan parte har dezakeen erakunde multzo bat agertzen da. Erakundeen inplikazio finantzarioa lortzea da hain zuzen ere Udalak Iraunkortasunaren Ekintza Plana kudeatzeko lortu behar duen oinarrizko alderdietako bat.

## **3.2 LERRO ESTRATEGIKOEN LABURPENA,**

### **PROGRAMA ETA EKINTZAK**



### **LEKEITIOKO TOKIKO AGENDA 21**

## **LERRO ESTRATEGIKOAK. LEKEITIOKO INGURUMEN EKINTZA PLANA**

**LE1. Udalerriko ekonomiaren sustapena bultzatu eta herritarren ongizatea bermatu.**

**LE2. Etxebizitza eta oinarrizko zerbitzuak bermatu.**

**LE3. Hiri ingurunea eta ingurumen zerbitzuak hobetu.**

**LE4. Herritarren mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase.**

**LE5. Herritarrekiko komunikazioa eta herritarren sentikortze eta parte-hartzea hobetu.**

**LE6. Bioaniztasuna eta paisaia babestu eta udalerriko gune eta elementu esanguratsuak ezagutarazi.**

**LE7. Iraunkortasun irizpideak txertatu udal kudeaketan.**

## **LE1. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA BULTZATU ETA HERRITARREN ONGIZATEA BERMATU**

### **P.1.1. Udalerrian dibertsifikazioa bilatuz, enpresa ekimen berriak babestu eta sustatzeko programa**

E.1.1.1. Eskualde mailan jarduera ekonomikoak mantendu eta erakartzeko lurzoru eskaintza nahikoa eta erakargarria bermatzearen dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa)

E.1.1.2. Eskualde mailan aukera eta enpresa ekimen berriak sustatzearen dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa)

E.1.1.3. Eskualde mailan egungo enpresa jardueren konpetitibotasuna sostengatzearen dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa)

E.1.1.4. Eskualde mailan elikagaien industriaren garapena sustatzearen dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa)

E.1.1.5. Lekeition lur-zoru industrialak eskaintzeko aukerak aztertu.

### **P.1.2. Lehen sektorearen sustapen ekonomikorako eta babeserako programa**

E.1.2.1. Eskualde mailako aktibo estrategiko gisa Ondarroako portuaren berrikuntza modu solidarioan sostengatzeko dauden ekintzak garatu. (eskualde mailakoa)

E.1.2.2. Nekazaritza ekologikoko ustiapenak sortzeko formazioa eman eta hauek monitorizatu. (eskualde mailakoa)

E.1.2.3. Nekazaritza Ekologikoko sare baten sorrera bultzatu (eskualde mailakoa)

E.1.2.4. Baserritar bokazioa duten gazteei erraztasunak eman eta behar dituzten baliabideak eskaini. (E.1.2.9 ekintzarekin erlazionatua) (eskualde mailakoa)

E.1.2.5. Arrantzarako bokazioa duten gazteei erraztasunak eman eta behar dituzten baliabideak eskaini. (eskualde mailakoa)

E.1.2.6. Bertako eta kalitatezko produktuen kontsumoa sustatu eta zirkuitu komertzialak landu. Jatetxe eta bertako produktuen ekoizleen arteko elkargo bat sortzeko aukerak aztertuz. (eskualde mailakoa)

E.1.2.7. Eskoletako jangeletan bertako produktuetan oinarritzen den menua eskaintzeko aukerak aztertu (eskualde mailakoa)

E.1.2.8. Baserri jarduerarekiko osagarriak diren jarduerak –nekazal turismoa, landa turismoa- sustatu. (eskualde mailakoa)

## **LE1. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA BULTZATU ETA HERRITARREN ONGIZATEA BERMATU**

E.1.2.9. Eskualdean AGROALDEA baten ezarpena sustatu. (eskualde mailakoa)

E.1.2.10. Baso-ziurtagiri iraunkorrari buruzko informazioa zabaldu eta ezarpena sustatu, ezarritako adierazleen betetzea bermatuz. (eskualde mailakoa)

E.1.2.11. Iraunkortasun irizpideak kontutan hartzen dituen artisau arrantza sare bat sortu, formazioa eskaini eta monitorizatu.

### **P.1.3. Udalerrian merkataritza sustatu eta garatzeko programa**

E.1.3.1. Eskualdeko azoka arruntak eta hauetan bertakoak diren produktuak saltzeko suspertuko dituen Plan bat burutu. Eskaintza gaur egungo beharretara egokitu. (eskualde mailakoa)

E.1.3.2. Bertako komertzioetan erostea sustatzeko sentikortze kanpainak egin

E.1.3.3. Alde zaharreko komertzioak berritzea edo berriak sortzea sustatu, zergak ez kobratuz, adibidez.

E.1.3.4. Merkatarri elkarte berri baten sorkuntza bultzatu Udala laguntzaile delarik

E.1.3.5. Merkatal eskaintza hobetzeko proposamenak landu

E.1.3.6. PERCOan jasotakoa eta Agenda 21 koordinatu.

E.1.3.7. Herriko sektore ekonomiko tradizionalak ezagutzera eman eta sustatu eskoletan

### **P.1.4. Udalerrian turismoa sustatu eta garatzeko programa**

E.1.4.1. Turismoa Sustatzeko Planetan ezarritako estrategia eta ekintzetan iraunkortasun irizpideak barneratu eta garatu. (eskualde mailakoa)

E.1.4.2. Turismo zerbitzuaren antolamendua hobetu, kalitatezko kudeaketaren sistemak bultzatuz. (eskualde mailakoa)

E.1.4.3. Proiektu edota produktu berriak diseinatu eta gauzatu. Gaur egun hasitako proiektuak bukatu: Maria Errota, Bengolea. (eskualde mailakoa)

E.1.4.4. Turismo azpiegiturak ugaritu eta hobetu: seinaleztapen-informazio tresna berriak finkatu. (eskualde mailakoa)

E.1.4.5. Turismo baliabideen komertzializazioa eta suspertze planak mantendu eta hobetu: Web, foiletoak, azokak, e.a. (eskualde mailakoa)

E.1.4.6. Lekeitioko Turismo Marketing Plana diseinatu

## **LE1. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA BULTZATU ETA HERRITARREN ONGIZATEA BERMATU**

E.1.4.7. Faroko interpretazio zentroa diseinatu eta gauzatu

E.1.4.8. Portuko interpretazio zentroa sortu, bertan ikastaroak eta tailerrak antolatzeko aretoa eta erakusketarako itsasontzi bat egokituz

E.1.4.9. Trinketeko aterpetxea zabaldu eta bertan ekintza programa bat garatu

### **P.1.5. Eskualde mailan enplegua eta prestakuntza gauzatu eta garatzeko programa**

E.1.5.1. Lan mundura bideratutako formazioa lantzen duten eskualdeko eragile ezberdinen artean, modu koordinatuan orientatzeko dauden ekintzak garatu. (eskualde mailakoa)

E.1.5.2. Lanbide Hasierako zentro berri bat eraiki (eskualde mailakoa)

E.1.5.3. Eskualdean insertzio enpresa berri bat sortu (eskualde mailakoa)

E.1.5.4. Pertsona ororen lan munduratzea erraztu eta aukera berdintasuna sustatzearren eskualdean dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa)

E.1.5.5. Bizitza guztian zeharreko ikaskuntza sustatzeko dauden estrategia eta ekintzak garatu. (eskualde mailakoa)

E.1.5.6. Eskualdean formazio eta enplegurako erakunde-esparru egonkor bat eratzeko dauden estrategia eta ekintzak garatu (eskualde mailakoa)

E.1.5.7. Koordinazio mahai bat garatu dauden lanpostuen eta kolektiboen arabera lan munduratzeari begira formazioa eskaintzeko. (eskualde mailakoa)

## **LE2. ETXEBIZITZA ETA OINARRIZKO ZERBITZUAK BERMATU**

### **P.2.1. Udalerrian dauden beharren araberako etxebizitza politika garatzeko programa**

